



Andrée de Jongh
"Dédée"

Dédée hil da, Comète sarearen antolatzailea



***Zer egin, galdegaiaren ondoren azalpen-aposizio
bat behar denean?***

**Izan ere, galdegaiak eta aditzak etenik gabeko
intonazio-segidaosatzen dute.**

Ikus adibideok:

1. [galdegai sintagma + aditza]

- Miren etorri da.
- Dédée hil da.

2. [galdegai sintagma + aditza] + [,] + aposizioa

- Miren etorri da, lehengo astean aurkeztu nizun adiskidea.
- Dédée hil da, Comète sarearen antolatzailea.

Ikus adibideok:

3. ?[galdegai sintagma] + [,] + **aposisioa** + [,] + **aditza**]

? Miren, **lehengo astean aurkeztu nizun adiskidea**, etorri da.

Intonazio-etena egitera behartzen du komak;
ondorioz, ez dirudi zuzena.

Azter ditzagun esaldiok:

- ➡ Idazle asko, herrialde guztietatik etorriak, bildu ziren Frankfurten.
- ➡ Datorren urtean Siziliara, amaren sorterrira, joango gara.
- ➡ Gure itsasontzia ozeanoaren mugetaraino, zimeriarren hiriraino, iritsi zen.
- ➡ Hamaika kazetari, argazki-kameraz hornituak, ikusi genituen ate aurrean.

Goiko esaldietako aposizioak koma artean jartzeak ez du laguntzen esaldiok behar bezala irakurtzen.

Irtenbide egokiak:

1. Aposizioa esaldi bukaerara eramatea edo aditzaren atzean ipintzea.

- Frankfurten, idazle asko bildu ziren, **herrialde guztietatik etorriak.**
- Datorren urtean, Siziliara joango gara, **amaren sorterrira.**
- Gure itsasontzia ozeanoaren mugetaraino iritsi zen, **zimeriarren hiriraino.**
- Ate aurrean, hamaika kazetari ikusi genituen, **argazki-kameraz hornituak.**



Irtenbide egokiak:

2. Aposizioa parentesi edo marra artean ipintzea.

(Marratxo arteko akotazioa ez da etentzat jotzen, eta, beraz, zilegi da aditzaren aurrean jartzea, baita galdegai denean ere.)

- Idazle asko —herrialde guztietatik etorriak— bildu ziren Frankfurten.
- Datorren urtean, Siziliara —amaren sorterrira— joango gara.
- Gure itsasontzia ozeanoaren mugetaraino (zimeriarren hiriraino) iritsi zen.
- Ate aurrean, hamaika kazetari (argazki kameraz hornituak) ikusi genituen.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

